

Larzabale-Arroze-Zibitze

Aurkibidea

Udalerria: Larzabale-Arroze-Zibitze

Sarrera



Oztibarre eskualdean kokatuta dagoen udalerria da. Landibarre, Izura-Azme, Jutsi, Ainhize-Monjolose, Bunuze, Gamarte eta Ibarrola ditu mugakide. Udalerriaren ekonomia laborantzian dago oinarriturik.

Argazkian Larzabale herria gaeri da, eke.org webgunetik jasotakoa.

- **Biztanleak:** 402
- **Euskaldunak:** %75,92

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- **Hizlariak:** 3

- Zintak: **3**
- Pasarteak: **18**
- Transkribatutakoak: **0**
- Audioak: **0**
- Bideoak: **18**

Proiektuak

- Euskal kultur erakundearen artxiboak
- Euskalkiak.eus
- IKER taldea

Hizlariak

Manex Fusch (1975)



Manex Fuchs Baionan jaioetako larzabaltar aktorea eta antzerki-zuzendaria da. Amikuzeko ikastolan ikasi zuen eta bertan sortu zitzaion antzerkirako grina. Euskaraz ere, ikastolan ikasi zuen eta gurasoak AEK-ren bitartez euskaldundu ziren. Bordelen ikasten ari zenean, *Le Petit Théâtre de Pain* antzerki taldea sortu zuen eta bertan lanean ibili zen, Ximun anaiarekin Axut! antzerki taldea sortu zuen arte. Helburua, euskarazko antzerkia sortzea da eta dagoeneko hainbat antzezlan egin dituzte, hala nola, *Errautsak* (2010) (Donostiako Saria irabazi zuena) eta *Hondamendia* (2022).

Kattin Harisgarat (1913-2009)



Kattin Harisgarat 1913ko maiatzaren 26an sortu zen Larzabalen, lau haurrideetako familia batean. Etxetiar alaba hau Donapaleuko etxetiar seme batekin ezkondu zen 1936an. Lau haur ukan zituzten. Senarra 54 urtetan zendu zitzaion 1963an eta haurren laguntzarekin segitu zuen laborantzian oraino 10 urtez. Laborantza utzi zuen 1973an (37 urtez etxetiar egon ondoren) eta hirierdira jin bizitzera semearekin. Hau hil zitzaion senarraren adin berean (54 urte). Kattin Harisgarat Donapaleuko xahar etxean sartu zen. Hor zendu zen 2009ko urtarrilaren 7an, 95 urtetan.

LZA-001 Hizlari ezezaguna (1926)

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. Lau haurretako familia (LZA-002/001)

Kattin lau haurridetako familia batekoa da. Lau haurride horietarik hiru 1914-1918 gerla aitzin sortuak dira, laugarrena 1922an.

2. Etxetiar izaitea (LZA-002/002)

Kattinen aitamak etxetiarrak ziren. Kabalen eta errekolten (uzten) erdia emaiten zioten etxearen eta lurren jabeari.

3. Aitatxi (LZA-002/003)

Kattin Harizgaraten aitatxi galtzak trikotatzen zituen etxeko heldu guzientzat.

4. Bokata egitea (LZA-002/004)

Bokata (mihise, oihal xuri guziak) barrika batean ezartzen zen, xaboinatzen eta hautsez estaltzen.

5. Iratze peitea (LZA-002/005)

Kattin iratze peiten aritzen zen aitarekin egun osoan. Ama bazkariarekin etortzen zen.

6. Eskola (LZA-002/006)

14 urte arte eskolan ibili da Kattin Harizgarat, goizetan joan eta arratsetan etxeratuz.

7. Dendariaren etxean (LZA-002/007)

Kattin josten ikasten egona da, negu guzietan, 6 ilabetez, 14 urte zituenetik 19 urte arte.

8. Kongregazionea (LZA-002/008)

Herrian, Kattin ez da sekulan dantzan aritu Kongregazionean zelakotz. Bestaburuetan, mantalina xuri batez jaunzten zen.

9. Ezteiak (LZA-002/009)

Kattin 1936an ezkondu zen eta senarraren etxera etorri bizitzera Donapaleura. Ezteiak goizetik hasi ziren eta jende andana polita bildu zuten (80). Garai hartan, presentak (opariak) bizpauru egun lehenago ekartzen ziren senarraren etxera, orgaz, Larzabaletik Donapaleura.

10. Aferman izaitea (LZA-002/010)

Kattinen senarra etxetiarra zen. Etxearen eta lurren jabeari sos zama bat eman behar zion, urtero, azaroaren 11rako.

11. Haur ukaitea (LZA-002/011)

Kattinek haurrak etxean ukan ditu emagintsarekin.

12. Elizan sartzea (LZA-002/012)

Haurra ukan eta, ama gazteak elizan berriz sartu nahi bazuen errito berezi bat errespetatu behar zuen nolazpait garbitua izateko.

13. Ogi egitea (LZA-002/013)

Irina eiheran eho, ogia bezperatik ohatu eta biharamun goizean erretzen zen labean.

14. Xaboina egitea (LZA-002/014)

Bereziki 1939-1945 gerla denboran, xaboina eginik izan du Kattin Harizgaratek.

15. Familiako elkarbizitza (LZA-002/015)

Ohiko familian, XX.mende erditsuan, harremanak ez ziren beti errazak belaunaldien artean, bereziki etxeko andere gaztea kanpotik etortzen zenean.

16. Maiatzeko rogazioneak (prozesioak) (LZA-002/016)

Maiatzean rogazionen ohidura bazen. Hiru egunez , goizean goizik meza entzuten zen eta ondotik oinez eta otoitzean joaiten gurutzeraino (auzo bakoitzak bere gurutzea bazuen).

17. 1939-1945 gerla Donapaleun (LZA-002/017)

Kattinen senarra gerlara joan eta 11 ilabeteren buruan sartu etxera. Kattinen anaia aldiz 5 urte egon zen preso Alemanian. Gerla denboran alemanak baziren nonahi Donapaleun.

18. 50 urtetan alargundu emazte baten bizia (LZA-002/018)

Kattinek senarra galdu zuen 1963an eta laborantza segitu behar izan zuen oraino 10 urtez, lan asko eginez.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2025-12-07

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com